

# DROGETEN

ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 206. alea. 2012ko azaroa



**Aitor  
Hernández  
bidea  
egiten**



Abenduaren 3a,  
EUSKARAREN Nazioarteko eguna

# Euskara ahora!



Euskal  
Birusa  
Elkartea



---

**Euskal Birusa Euskara Elkarteak sagarrak banatuko ditu Patxi plazan  
euskararen erabilera sustatzeko**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Aitor Hernández.

**LAGUNTZAILEAK:**

Iban Cid, Leire Elustondo, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza, Valentín Mugarza, Ioritz Raseo eta Izara Rivas.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Aitor Hernández, Valentín Mugarza, Kristina Palacios, Izara Rivas, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Andrea Díez, Nora Mateos eta Olatz Loiola.

**TIRADA:**

2.300 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## TXIMUTXA BUZTANLUZEA *Mito Aegithalo caudatus*



Bere gorputzaren bikoitza baino gehiago neur-tzen duen buztanagatik ez balitz, hegaztirik txikiaren artean egongo litzateke. Kabi biribilkotea egiten du eta honen barruan dagoe-nean buztan itzel hori lepoaren gainera tolestu behar izaten du. Desberdintze kontuetan ba, latinezko 'cauda' edo buztan horrek demasean errazten digu bidea eta papar alde arrosak ez digu duda izpirik lagatzen. Nik euretako asko sagasti inguruetan ezagutu ditut, kumeak egin ostean, aldraka; gaur egunean ere ikusten dira, baina mendi aldean eta bikote bakarraren arrimura gehientxoetan. Txori mantsoa da eta gizakiren bat hurreratu ezker ez ikusiarena egiten du, berean jarraituz, adarrak adarreko geratu bako dantzan.

## Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO ....4	BOTEPRONOAN.....16
Komando Antilimako	Oier Correia
ELKARRIZKETA: .....5-7	KIROLZALE .....17
Kristina Palacios	Aitor Hernández
MALLABIAN ZER? .....8-9	IRITZIA .....18
Esti Arrizbalaga	Heldu da berriro eguna
MOTZEAN .....10	SALEROSKETAK .....19
Euskararen Eguna	Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN .....12-15	ANTZINAKOAK.....20
Argazkiak / Irabazleak / Giroa	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? .....15	KALEKO INKESTA .....21
Leire Elustondo	Kotxe elektrikoa erosiko zenuke?
	AGENDA .....22
	Abenduko agenda≠

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Komando Antilimako

Urtebete epean 6 kontzertu eskaini dituzte talde ermuar honetako kideek eta eurek sortutako abestiak sistemaren kontrako ereserkiak dira.

**1** Duela urtebete sortu genuen taldea, musika gustatzen zaigulako, musika jotzea atsegin dugulako eta jendeak abesten ditugun sistemaren kontrako abestien mezuarekin identifikatzea nahi dugulako.

**2** Izena... txikitako kontuak dira! Taldekide guztioi iruditu zitzaigun jo behar genuen musika estilora egokitzen zela eta horregatik aukeratu genuen.

**3** Hiru lagun gara: David (baxua eta ahotsa), Maikel (gitarra eta koroak) eta Iban (bateria eta koroak). Hasieran gitarra jotzen zuen laugarren taldekidea genuen, Jose, baina lehen bi kontzertuetan baino ez zen egon.

**4** 'Auzoko punk'-a egiten dugu. Gure musikak protesta egiten du eta jendeak gure mezua entzun eta baloratzea nahi dugu. Gure kontzertuetan jendea gurekin identifikatzea eta ondo pasatzea da gure nahia.



**5** Guk sortzen ditugu gure letrak eta musika. Gure abestiek gure gizarteko bizitzaz hitz egiten dute. Era berean, ozen esan eta publikoarekin konpartitu nahi ditugun bizipen pertsonalei buruz hitz egiten dute gure letrak.

**6** Betitxartoko lokaletan entseatzen dugu. Gure 'box' berean entseatzen duten beste talde batzuekin adostutako ordutegia dugu.

**7** Sei kontzertu egin ditugu gure lehendabiziko urte honetan, oso animatuak izan dira denak eta hainbeste maite dugun publikoa ondoan izan dugu. Azken kontzertua irailaren 28an egin genuen, Mallabiko Herriko tabernan, eta bertan guk geuk

grabaturako maketa oparitu genien gu ikustera joan ziren guztiei. Hurrengo kontzertuetarako beste aukera batzuk baloratzen ari gara.

**8** Aipatu dugun maketa hori besterik ez dugu kaleratu, Betitxartoko gure boxean grabatu genuena. Ez dago salgai, baina kontzertuetan oparitzen dugu. Urtebete barru, hala ere, CDa grabatua izatea nahiko genuke.

**9** Myspacen gure abestietako batzuk entzun daitezke eta gure kontzertuetan burua galtzen dugunean ateratako argazkiak ere ikus daitezke. Gainera, komandoantilimako@hotmail.com helbidea dugu eta baita facebook: komandoantilimako.

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

**san antonio**

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**

38 urte Ermua euskalduntzen





**Kristina Palacios, brigadista Palestinan:**

**“Palestinarrek euren errealitatea mundu osoari erakusteko behar itzela dute ”**

Kristina Palacios programatzaile informatikoa da eta abuztuaren 24tik irailaren 10era arte Palestinan egon zen brigadista, Cisjordanian. Turismoa egiteko tartearen baina, batez ere, bertako errealitate gordina gertutik bizitzeko aukera aprobetxatu zuen eta horren berri emateko konpromiso zintzoa hartu zuen. Zoritxarrez, Israel eta Palestinaren arteko gatazkari ez dio irteerarik ikusten epe motzean, baina ‘palestinarrak = terroristak’ binomioa apurtzeko beharra azpimarratzen du, eurena defendatu baino ez dutelako egiten.

**- Nola heldu da programa-zaile bat Palestinara?**

Egia da gai honek ez daukala zerikusirik nire lanarekin, baina lanaren bitartez etorri zitzaidan gonbitea. GKE-ekin lan egiteko dirulaguntza eskaini ziguten lanean nagoen enpresan eta Errioxako Sodepaz GKE-arekin kolaboratzen hasi nintzen. Hainbat proiektu kudeatzen ditu Sodepaz-ek eta aurten, kasualitatez, Palestinara bidaia antolatu dute eta estatuko 10 lagunek bidaiatu dugu bertara.

**- Bidaia egin aurretik Palestina eta Israelen arteko gatatzaren berri zenuen?**

Berriak irakurtzen nituen eta interesatzen zitzaidan, beste barik. Ekitaldiak antolatzen hasi ginenean hasi nintzen gai honetan sakontzen.

**- Beste bidaia batzuk ere bazeuden. Zergatik Palestinara eta ez beste leku batera?**

Interesgarria iruditzen zaidalako. Deigarria da baina galdera bera egin zigun Israelgo poliziak Barajasen. Fakturatu aurretik zure 'arrisku maila' neurtzeko galdera batzuk egiten dizkizute. Bost maila daude eta ni 4.ean nengoen.

**- Zer da Israelgo poliziarrentzat 'arriskua'?**

Palestinako egoera ezagutu, hona etorri eta horren berri ematea. Ez dute nahi jendeak palestinarren egoeraren berri izatea. Palesti-

narrak terroristatzat hartu ohi dira eta Israeliek uste hori mantendu nahi du. Baina errealitatea guztiz ezberdina da. Ekintza isolatuak badaude, baina Palestinak bizi duen egoera oso gogorra da eta batzuetan erantzun bortitzak ematea normala da.

**- Zer espero zenuen bidaia honetaz?**

Ikusi nuena ikustea espero nuen. Baina oso 'heavy'a iruditu zitzaidan, oso gogorra. Militarren 'check pointak' (kontrolak) existitzen zirela banekien, baina bertara joan eta militarren ondotik pasatzerakoan beldurra pasatzen duzu. Duela urte batzuk Indian egon nintzen eta bertan pobrezia dago; zuk pobrezia hori ikusten duzu baina ez duzu zure gorputzean sentitzen. Palestinan, berriz, beldurra zure baitan sentitzen duzu, eurek sentitzen duten bezala.

**- Nolakoa da bizitza Palestinan?**

Oso egoera bereziak bizi behar dituzte. Israeleko kolonoak lurretako zatiak kentzen dizkiete eta alanbraz inguratzen dituzte, esaterako. Nahiz eta palestinarrak lur horien jabe izan, ezin dituzte landu, israeldarrei baime-na eskatu behar dietelako. Edozein lekutan errepide bat eraiki edo kale biren artean bidea egiten dute israeldarrek eta palestinarrak ezin dituzte horiek zeharkatu. Horrelako gauzak nonahi ikusten dira eta normaltasu-



"Israeldarrek tankez, palestinarrak astoz"

nez bizitzea zaila da, umeak eskolara eramatea, lanera joateko militarren kontrolak pasatu beharra... Gure gida esaterako, ezin zen Jerusalem edo Nazaretera gurekin etorri palestinarra zelako.

**- Nola bizi dituzte eurek lege edo agindu horiek?**

Horrelakoak ikusterakoan asko haserretzen ginen gu, harriak hartu eta harresietera botatzeko gogoia genuen. Eurek, berriz, egunero bizi dituzte horrelakoak eta ezin dira egunero haserretu. Ez dituzu etsituta ikusten, badakite egoera injustua dela, baina euren egunerokotasunaren zati bezala onartzen dituzte traba horiek.

**- Cisjordania harresi batekin inguratuta dago egun, ezta?**

Bai, Israel eta Palestina bereizten dituen horma da, baina hitzartutako mugak ez dira errespetatzen. Israelgo kolonoak etxeak edonon eraikitzen dituzte eta palestinarraren beldur direnez, Israeleko militarrei babesa es-

katzen diete. Militarrek babesa eskaintzeko lehen aipatutako harresia mugitzen dute eta apurka-apurka Palestinari lurra lapurtzen doaz. Gainera, lur azpian ura topatzen denean, zuzenean israeldarrek hartzen dute lur hori. Horrela Palestina ur barik eta lantzeko lur barik geratzen ari da.

**- Nolakoa da israeldar eta palestinarraren arteko harremana?**

Ez dute harremanik, egoera oso ezberdinetan bizi dira. Palestinarrak zerga oso altuak ordaindu behar dituzte etxeak eraikitzeko eta baimenak eskatu behar dituzte solairu bat baino gehiago eraikitzeko, hau da, altueran eraikitzeko. Esaterako, Ebroneko etxeetako beheko solairuetan palestinarrak bizi dira eta goiko solairuetan israeldarrek. Palestinarrak sareak ipini behar izan dituzte euren etxe aurrean, goiko pisukoek zaborra leihotik botatzen dutelako. Sinestezina da!

**"Nola konpon daiteke zerbait etsaia etxean badaukazu?"**

**Caperos**

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



- *Giro horretan gorrotoa edo amorrua sumatzen da?*

Ez nuke esango, baina egia da palestinarrek gauza asko isilpean gordetzen dutela. Euren egoerari buruzko kontuak, berriz, euren errealitatea, munduan zabaltzeko behar itzela dute: "Etorri - esaten dizute- begira, gu horrela bizi gara, hau da gure egoera, mende honetan...". Nazioarteko komunitateak laguntza eskaini dien itxaropena dute.

- *Gatazkari irteera ikusten diote?*

Eurei galdetu beharko genieke! Nik uste dut eurek konponbidea topatu nahi dutela baina, nola konpon dai-

teke zerbait etsaia etxean badaukazu eta etsaiak ez badu ezer konpondu nahi?

- *Eta zuk irteera ikusten diozu?*

Ba... ez. Momentu honetan eta epe laburrean ez, behintzat. Israelek dauka boterea eta ez du ezer konpondu nahi.

- *Harresiaren kontua dela eta, argi ikusten da nazioarteko akordioak ez direla errespetatzen, ezta?*

Ez eta gainera giza eskubideak behin eta berriz urratzen dira eta inork ez du ezer egiten.

- *Gure inguruko jendeak Palestinako errealitatea ezagutzen duela esango zenuke?*



"Palestinarren etxeen aurre-aurrean eraikitzen ditu Israelek harresiak"

## "Giza eskubideak etengabe urratzen dira eta inork ez du ezer egiten"

Batzuk eurek uste baino gu-txiago dakite eta beste batzuk nik espero baino gehiago.

- *Hemendik palestinarren egoera hobetzen lagundu daiteke?*

Zaila da. Alde batetik ezin garelako hemendik gure irtenbideekin joan, hemengo 'eredua' bertan inposatu nahian. Hemen, eurek emandako informazioa zabaldu baino ezin dezakegu egin. Hala ere, herritarrek informazio hori jakitea ondo dago, baina instituzioek aspaldidanik dute honen berri eta ez dute ezer egiten. Israel potentzia handia da, AEBekin oso harreman ona du... Ez da interesatzen tartean sartzea.

- *Zuk euren mezua zabalteari ekin diozu?*

Bai, hori baita eurek eskatu ziguten bakarra eta gainera niretzako burutik kendu behar dugu palestinarrek terroristak direla. Eurak dira erasoak jasaten dituztenak! Israel indartsua da eta militarrekin borrokatzen du. Palestina ahula da eta zibilekin egiten du aurrera. Militarrei eta terroristei buruz hitz egiten da, irakurketa hori egiten da.

- *Komunikabideek ondo jotzen dute gai honetan?*

Gauza guztiekin gertatzen den moduan, komunikabide batzuk trataera egokia ematen diote gai honi eta beste batzuk ez, komunikabidearen arabera.

- *Bidaia honetatik bueltan, zure bizitza zerbaitetan aldatu da?*

Bertan zaudenean bizitza gatazka honi zabalkunde emateari dedikatuko diozula uste duzu, eta ekimen mordo egingo genituela pentsatu genuen taldekook. Hemen, ordea, bakoitzak bere bizitza dauka eta konturatzen zara ezin duzula gai guztiekin hainbeste sentsibilizatu.

- *Bidaiatzea gustuko duzu?*

Bai, asko gustatzen zait. India, Venezuela eta Marokon egon naiz, esaterako. Taldean primeran moldatu gara eta horrez gain, hain egoera latzak gertutik bizi izan ditudalako, hau nire bidaiarik garrantzitsuena izan da.

- *Badago munduan horrela-ko beste gatazkarik?*

Ezetz esango nuke. XXI. mendeko Apartheid-a da.

Dorleta Vidal

## ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41



Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

·Teak eta kafeak.  
·Belgiako txokolatea.  
·Eguneko tea dagarrri  
·Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

**Oparitzeko neurria egindako poltsak!**

Ferreteria/Burdindegi



\* Burdindegia  
\* Tresneria  
\* Sarrailagintza  
\* Giltzak / Aginte automatikoak  
\* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak  
\* Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreterianboto.es



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

## SEHIGA



### LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Esti Arrizabalaga, irakasle:

# “Orden eta detaile honek die umiai segurtasune eta konfidantza emongo deutsienak”

**Esti Arrizabalaga, 31 urte. Bederatzi urte daroiez haurreskoletan lanien. Aurtengue bere laugarren ikasturtie da Mallabiko haurreskolan. Aste bete Budapesten igaro ondoren batu gara berakin.**

- Zer ikasketa ein dozuz?

Durangoko institutuen batxilerra amaittu ta gero Eskoriatzara juen nintzen Haur Hezkuntza ikastera HUHEZI unibertsitatera.

- Zer dala eta?

Haurrek betidanik erakarri nabe eta gogoko naban irakaskuntzako lana. Erizaintza be gustatzen jatan, baina garai hartan nota altue eskatzen eben. Eta zorionez irakaskuntza aukeratu naban.

- Zertara juen zara Budapestera?

Ikastaro baten parte hartzera. Pikler pedagogian saktontzera. Ikastarue azaruan 12-16ra izen da, astelehentik ostiralera. Goizeko 9:00-17:00. Tartien bagenittun atsedean ordu batzuk.

- Noztik dozu pedagogia honen barri?

Duela 4 edo 5 urtetik hona. Oposaketa batzuk prestatzen irakurri naban lehenengoz


Emmi Piklerren izena.

- Ezagutzen ez dogunotzat, azaldu nor dan Emmi Pikler.

Emmi Pikler (1902-1984) familia judutar bateko alaba zan. Mediku ikasketak egitera Viena juen zan eta han espezializatu zan pediatria izaten be. Pediatria moduen lan egitten hasi zan Budapest. Eta lan honetan umeari erreparatzen eutson, haren jarduteko erari, haren berezko jolasari... Hortik abiatute ikerketa pilue egin ebazen eta Budapesten umezurtz-etxe bat jarri eban martxan bere pedagogia erabiliz eta ikerketekin jarraituz.

- Zer diño bere pedagogiak?

Pikler pedagogiaren ideia nagusixena mugitzeko askatasune da. Hau da, haurrari bere kabuz itxi behar jakola bere garapen motorrien, ez dogule pausurik aurreratu



biherr helduok. Honek esan nahi dau, umiek bere kabuz jarritte egoten ikasi ez badau, ez dogula jarritte ipiniko atzien kojn pilo batekin; edota oinez edo tente jartzen bere kabuz ikasi ez badau ez dogula eskuetatik heldute oinez eruengo. Umiek badaukie gaitasune mugimendu askatasunien postura desberdinek lortzeko, helduan interbentziño zuzenik barik. Honek ez dau

esan nahi umie bakarrik itxiko dogunik, gure arreta biherrezkue izengo da, baina distantzia batetik eta umie bere jokuen libreki itxiz. Pedagogia honek garrantzi haundixe emoten dotze zaintzei, eta honek pardela aldatzie, arropa jantzi eta erantzite, edota janari orduak die. Ohitura haundixe dogu ekintza honek azkar egitteko eta umian erritmuen erreparatu

**“Haurrari bere kabuz itxi behar jako bere garapen motorrean, helduok ez dogu pausurik aurreratu behar”**

**IZOTZ**  
IZOZTUAK



ERMUA  
Merkatua  
54-55 postuak  
943174101

ARRASATE  
Merkatua  
943770598

**ELUR**  
ESTETIKA-EDERGINTZA



- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**ILEAPAINDEGIA**

*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**



barik. Eta institutu honetan alderantziz ikusten dabe. Denbora asko eta kalitatez- koe eskaintzen dabe egune- roko zaintza honetan eta jolasa librie da, haurrak era autonomuen haz daittezen eta helduenganako depen- dentziarik sortu ez daiten. Errope kentzen adibidez, umian kooperaziñue lantzen dabe eta erritmue eta pos- turak errespetatzen ditzuz- te, detaile guztixek eta or- dena zainduz. Deabrue deta- ilietan dauela diñue. Or- den eta detaile guzti honek dielako umiai segurtasune eta konfidantza emongo deusienak.

- **Aittatu dozun umezurtz etxe horrek martxan jarrai- tzen dau gaur egun be?**

Ez, Hungariako ministeri- xuek subentziñue kendu zo- tzielako. Baina egun pedagogia bera erabiltzen daben eskola bat daukie, 0-3 urteko adin tartiantzat, eraikin berien.

- **Zer ikasi dozu ikastaruen?**

Gauza asko, gehixegi! Ikasi eta ikusi egin dogu. Bideo eta argazki pilo bat ikusi doguz, e- urek behaketan bidez egitten dabe lan gehixena. Umiangan- ko errespetue erritmuen, mu- gimenduen, umian nahixetan, iniziatiban... Zelako konfidan- tza girue eta lasaitasune naba- ritzen dan ume eta zaintzailian artien. Ikasi dot asko daukegu- le ikesteko. Eta umianganako harremana kalitatezkie izen- da, bere erantzune be holakue izengo dala. Emoten doguna jasotzen dogula.

**“Umianganako harremana kalitatezkie izenda, bere erantzune be holakue izengo da”**

- **Badozu ikesittekue hamen praktikan jartzeko asmorik?**

Jada Mallabiko Haurresko- lan nire lankideekin zehaztu- te daukuz pauta batzuk eta jarri doguz batzuk martxan. Baina oin gehixau dakit eta ikasitakue aprobetxatuko dot nire lankideei azaltzeko eta haurrenganako tratue kalita- tezkie izen daixen.

- **Gure inguruko jende gehi- xau jun da ikastaro horre- tara?**

14 laguneko talde bat izen gara eta horretatik 8 euskal- dunek izen gara, nafarrak, gi- puzkoarrak eta bizkaitarrak.

eta 16:30etan azaruen Buda- pesten ilundu egitten dau. Beraz, ia gehixena gabez iku- si biher izen dogu. Baina ga- bez be oso hiri politte da.

- **Errepikatuko zeunke?**

Bai noski. Orain hasierako ikastaro hau eginde beste gauza batzuk sakontzeko go- gue geratzen da. Urtien ziher 3 edo 4 ikastaro egoten die gaztelera. Oso garestixe da baina ahal dodanien beste bat egingo dot, bai.

- **Zerekin geratzen zara?**

Emmi Piklerrek egin eban lan izugarri onaz geratzen naz. Eta zelako gitxi entzun eta irakurri leiken berari bu- ruz psikologia edo garapena- ri buruzko liburuetan. Azken finien gure oinarrixe bizitza- ko lehen urte honetan daue- la eta kalitatezko lana egi- nez gero umian garapena be kalitatezkie izengo dala. Gure lana oso garrantzitsu- e da, 0-2 urteko umiekin ari- tzen garelako eta honek era- gine eukiko dau gerora, haurtzaruek asko baldintza- tzen gaitu eta!!

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



Gainera- ko 5 katalunia- r r a k e t a b e s t e a s t u r i a r b a t.

- **Turismorako astirik izen dozu?**

Ez larregi. 17:00 t a n amaitzen gen- dun ikastarue

**MUGA** **KIKLOAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA**

**ETXERA**

943 174 952 (asteartetan itxita)

**Pub Dakota**

Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

## AZAROAREN 24AN ERMUAN KANTUAN BURUTUKO DA

Hilero bezala Ermuan Kantuan antolatu du Euskal Birusak azaroan. Lagunarteko giroan euskal kantak abestea gustuko duten guztiek azaroaren 24an dute hitzordua, 12.00etan, plazatik irtenda. Animatu!



## EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA EGINGO DU KONTSEILUAK

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak manifestazioa deitu du abenduaren 1erako. 17.00etan ekingo zaio martxari, Anoeta estadioetik hasita eta 'Euskaraz bizi nahi dut' lelopean. Atxikimendua eman nahi dutenek [www.euskarazbizinahidut.org](http://www.euskarazbizinahidut.org) webgunera jo dezakete.

## Euskal Birusak 'Euskararen eguna' ospatuko du

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta 'Euskara ahora' kanpaina burutuko du Euskal Birusa Euskara Elkarteak. Horri esker 200 sagar inguru banatuko ditu Patxi plazan arratsaldean eta honen helburua da "jendeak euskara erabiltzera animatzea eta euskara egunerokotasunean presente izatea", elkarteko koordinatzaile Amaia Arriagaren esanetan. Gainera taldeak bazkide berriak egiteko aprobetxatuko du.



## Emakumeen Topalekuak kontzentrazio deia egin du

Azaroaren 25ean, domeka, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta Ermuko Emakumeen Topalekuak herritarren kontzentrazioa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek plazara joan beharko dute 13.15ean. Bestalde, hilaren 22an Beldur Barik lehiaketaren III. edizioa egingo da Lobianon, 18.00etan. Honekin batera, Ermuko 'Tratu Onen Aldeko Plataformak' bere burua ezagutzera emateko diptikoa argitaratu du: "Plataforma hau topaketa, hausnarketa eta ekintzak suspertzeko talde eta gunea da. Beste leku batera begiratu ezin dezakegun emakumeak eta gizonak gara. Indarkeria matxista mantentzen duen egungo errealitate hau aldatu nahi dugu". Plataforma hau ezagutu edota bertan parte hartu nahi duten gizon, emakume, talde eta kolektiboek deia egiten diete. Informazio gehiago eskuratzeko Izelaieta 12ra hurbildu, 943171030 telefonora deitu edo [casadelamujer@udalermua.net](mailto:casadelamujer@udalermua.net) helbide elektronikora idatzi daiteke.

## Ingurumena zaintzeko bi kanpaina martxan ipini dira

Azaroaren 20an bukatu zen gaikako zabor-bilketa berriaren parte hartzeko izen ematea eta laster bilketa hori egiteko beharrezkoak diren materialak jasoko dituzte apuntatu diren lagunek: kaleetan jada dauden edukiontzi marroien giltza, etxerako ontzia eta poltsa konpostagarriak. Era berean, birziklatu daitezkeen biohondakinen zerrenda jasoko dute. Beste alde batetik, erosketa-orgatxoaren erabilera sustatzeko kanpaina ipini du martxan Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta herriko hainbat merkatariren laguntzarekin. Kanpainaren diptikoa azaltzen den moduan, orgatxo batek urtean 238 plastikozko poltsa erabiltzea saihesten du. Parte hartu nahi duten merkatariek abenduaren 18ra bitartean eman dezakete izena eta euren bezeroei txarteltxo emango diete erosketak egiten dituztenean. Abenduaren 19an, 12.00etan, 300 erosketa-orgatxo zozketatuko dira txartelak bete dituzten ermuar guztien artean eta irabazleek hilabeteko epea izango dute euren oparia Abiapuntun jasotzeko.

**mari  
asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea  
Erdikokale, 19  
Telefonoa 943 17 22 43  
48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**  
  
Ile-apaindegi bat baino gehiago!  
Egokitutako burua garbitzeko konketa  
943 17 28 09 • Goienkale 12

  
**CITROËN  
AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

**Quetzal**   
[arropa, bitxiak, opariak...]  
berria!!  
ekainetik aurrera  
**Eibarren** ere  
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500








SAN MARTIN AZOKA

animaliak dantzariak

san martin azoka taloileak postuak epaimhaia txerria





**TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK**

1. saria: Txerria edo 400 euro: 6794  
Erreserba: 5602.
2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 9475  
Erreserba: 0407

**SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK**

Aurtengo epaimahaian honako hauek izan ziren: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorika, Idiazabal gaztako teknikaria den Bittor Rodríguez, Gorka Alzaa herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko zinegotzia den José Luis Clemente eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean.  
Euren erabakia:

**FRUTA ETA ORTUARIAK**

1. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).
2. saria: Mila Amillategi, Barrenetxe baserria (Mallabia).

**GAZTA**

1. saria: Andoni Padilla, Mekoleta auzoa (Otxandio).
2. saria: Florencio Txurruka, Barroeta Torre (Markina).

**OGIA**

1. saria: Maite Leanizbarrutia, Barrutia baserria (Elorrio).

**EZTIA**

Txilar eztia: Valentin LLona, Urikoa baserria (Zornotza).  
Milalore eztia: Ekaitz Aurre, Portugaletekoa.

**SAGARDOA**

Jose Antonio Bilbao, Axpe baserria (Markina).

**TXAKOLINA**

Amaia Aretxabaleta, Lezamakoa.

**AIPAMEN BEREZIA (SALTOKIRIK TXUKUNENA)**

Txomin Arregi, Markinako Mibe auzoa.

**BASERRITAR JANTZIEN LEHIAKETA**

Neska: Libe Elizondo - Mutila: Alex Bouzo.  
Saria: Bi lagunentzako afari bana.  
Gaizka Areitioaurtenak, Marivi Carrillok eta Olatz Bouzok osatu zuten epaimahaia.

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

40 dendari aurkeztu dira aurtien San Martineko erakusleiho lehiaketara. Mariasun loradendak eskuratu du aurtien erakusleiho lehiaketaren lehen saria, "arrautzetan pertsona ezberdinen aurpegiak margotzeagatik, azokara bertaratzen direnen adierazle", epaimahaiaren iritziz. Bigarren saria Etxedreams koltxoi-dendak jaso du, "azokaren gaiarekin bere produktua integratzen oso ondo jakin duelako". Epaimahaia honakoek osatu dute: Lorea Perosanz (dekoratzailea), Natalia Arrieta (margolaria) eta Estibalitz González (dendari ohia).





**Gorka Alzaa herriko ordezkaria izan da San Martin Azokako epaimahaian**

Hainbat urtetan txahal eta saiheski postuan laguntza ematen egon eta gero, epaile izateko gonbitea jaso du aurten Gorka Alzaa ermuarrak. Eztia, gazta, ogia, sagardo eta txakolina dastatzeko aukera eta horiek baloratzeko orduan kontuan izaten diren ezaugarriak zeintzuk diren ikasteko aukera izan zuen. *“Esperientzia polita izan da eta datorren urtean ere, lan hau egiteko prest nago!”*, dio Gorkak.



**Hiru lagunek asmatu dute txerriaren pisua aurten antolatutako 1. Porran**



335 kilo pisatzen zuen plaza erdi-erdian aurten egon zen txerriak. Haren pisua asmatzeko antolatutako 1. porran 412 apustu egin ziren eta 3 lagunek asmatu zuten: Nelia Mendesek eta Mikel Arribasek eta Eibarko Carmelo Gerenak. Euskal Birusak jasotako diruaren %70 banatu zuen irabazleen artean eta bakoitzak 96€ eskuratu zituen.



**50 lagunetik gora Gaztañerren**

San Martin azokako ajea igaro eta gero burutu zen aurten ere Gaztañerre, azaroaren 12an. Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek antolatutako afari-merienda autogestionatutuan 53 lagun bildu ziren Erretena elkartearen eta edizio honetako berrikuntza merienda aurreko kalejira izan zen: *“19.00etan Patxi plazan elkartu ginen eta trago pare bat hartu genituen Erretenara bidean, trikitilariak lagunduta”*, dio Juanmi Bravok, Berbalaguneko koordinatzaileak. Edaria eta gaztaina erreak Kaltxango AEK-k eta Berbalagunek ipini zituzten eta afalostean kantuan ibili ziren bertaratutakoak 22.00ak arte.

**Sergio Rodríguezek irabazi du aurteko Kaltxango AEKko otzara**



Argazkian Iker, semea, ikus daiteke.

- Sagardotegiak, ezkontzak, jaiotzak, Errioxa, elurra, bidaia turistikoak...  
- Profesionalak gara lantegietara, eskoletara eta kirol taldeak eramaten.



**ALCONADA**  
autobusak  
610 28 39 39  
busalconada@gmail.com

Preziorik onenean egingo dizugu aurrekontua *Eskaintza bereziak!*

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36



**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

Ume eta gazteentzako zapata-denda...



**Arinka**  
Orbe Kardinalaren plaza 8. behe  
ERMUA - Bizkaia  
943 17 41 26



Leire Elustondo, abeslaria:

## “Etorkizunean kazetaritzatik eta kantutik edatea gustatuko litzaidake”

**‘Ama vótame’ ETB2ko kantu lehiaketan garaile izan ondoren ‘Kantuan’ programan dugu Leire Elustondo, larunbat gauetan 22.00etan ETB1en.**

- *Nola suertatu zen ‘Ama vótame’ eta ‘Kantuan’ programetan parte hartzea?*

Kasualitatea izan zen. Nere neba Ikerrek ‘Ama vótame’ programan parte hartzeko izena eman zuen. Adin txikikoa zenez ezin izan zuen parte hartu eta ni animatu ninduen. ‘Kantuan’ programan parte hartzeko, berriz, lagunek animatu naute.

- *Eta amak? Nola hartu zuen ‘Ama vótame’ programan parte hartzeko proposamena?*

Lotsa ematen zion hasieran, baina Iker eta biongatik egin zuen. Azkenean oso esperientzia polita izan dela esaten du.

- *Gustura ikusten zaizu kamera aurrean...*

Ni neu izaten saiatzen naiz, natural izaten.

- *Zer giro egoten da lehiakideen artean?*

Oso giro polita egoten da. Lehiakideak izan arren, adiskidetasun harremana dago. Eszenatokira igo aurretik animoak ematen dizkiogu elkarri.

- *Hauk ez dira zure lehenengo lehiaketak izan, noiz*

*hasi zinen kantu lehiaketetan parte hartzen?*

‘Euskal Kantu’ lehiaketa izan zen lehenengoa, 13 bat urte izango nituen lehenengoz, Bizkaiko txapelketan parte hartu nuenean. Orduetik, urtero aurkeztu naiz. Nere neba Ikerrekin duela bi urte aurkeztu nintzen eta batera abestu genuen. Ikerrek ere lehiaketan parte hartzen du urtero.

- *Epaimahaiaren kritikak jasotzea gogorra da?*

Bai, baina asko ikasten da. Ni oso positiboa naiz kritikekiko, ‘Kantuan’ programan adibidez, ahotsaren potentzia kontrolatzeko eta baxuei indarra emateko esan didate.

- *Lagun eta familiarenak gogorrakoak dira?*

Bai, batez ere Ikerrenak! Nire onena eman dezadan esaten dit. Txikiagoa izan arren, kasu handia egiten diot.

- *Abeslari profesionala izatea gustatuko litzazuke?*

Bai, nola ez! Hala ere, ikasketetan oso zentratuta nago.

- *Zer ikasten duzu?*

Kazetaritza ikasten ari naiz. Etorkizunean bi alor horietatik edatea gustatuko litzaidake.



- *Telebista komunikabidea ondo ezagutzen duzu, bertan lan egitea gustatuko litzazuke?*

Bai, telebista zein irratia oso gustuko ditut, ahoz idatziz baino gehiago gustatzen zaidalako adieraztea.

- *Zer estilo abesten zaude erosoan?*

Abesteko soul doinuak gustatzen zaizkit, hala ere euskal kantua ere gustuko dut. Ama kubatarra eta aita euskalduna direlako izan daiteke hori. Baina denetik entzuten dut eta estilo guztietan trebatzen saiatzen naiz.

- *Zein talde edo abeslari duzu gustuko?*

Beyoncé, Whitney Houston, Aretha Franklin, Esne Beltza, Gatibu, Su ta Gar, Berri txarrak... musika mota bakoitzak bere momentua dauka.

- *Nola nahiago duzu, bakarka edo taldeka aritzea?*

Bietara gustatzen zait. Kantuak markatzen dizu hori. Dua dutenean hobereana binaka abestea da, baina beste kantu batzuk erosoago kantatzen ditut bakarka.

- *Binaka abestekotan...*

Nere neba Ikerrekin! Kantatzen oso gustura ibiltzen gara eta Ikerrek belarri fina dauka, noizbehinka ama ere gehitzen zaigu.

- *Amaitzeko...*

Lehiaketetan lagundu nauten familia eta lagun guztiei bihotz-bihotzez eman didaten laguntasun guztia eskertu nahi diet eta ez dut ahaztu nahi kaletik animoak ematera hurbildu zaizkidanak. Ematen didaten berotasunak eta animoek asko laguntzen naute!

Ane Saénz

**“Kamera aurrean ni neu izaten saiatzen naiz, natural izaten”**

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

# O I E R C O R R E I A

- *Zenbat denbora daramazu ambulanzia gidari bezala?*

Lau urte.

- *Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?*

Jendearekin harremana eta tratua, zalantzarik gabe. Gidatzea gustuko dut, beraz ezin naiteke kexatu. Egun guztiak ere ezberdinak dira, ez dut lan errutinarik, beraz hori estimatzekoa da.

- *Eta gutxien?*

Ordutegiak eta asteburuetako lanak izan daitezke alde txarrak; baita egoera larriak ikusi eta momentu horietan egon behar izana ere.

- *Gaixotasuna edo larrialdiak gertu izateak, zerbait erakutsi dizu?*

Bai, asko. Larrialdi egoeretan lasaitasuna mantentzen eta transmititzen gehien bat.

- *Anbulanzia gidari ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke?*

Ez dakit... baina segur aski jendaurrean edo jendearekin harremana eskatzen duen lanen batean arituko nintzateke, hori baitut gustuko.

- *Zazpi urtez Mallabin, zer dela eta?*

Ba horrela suertatu zelako. Bikotea eta biok inguru-



**Duela 24 urte Elgoibarren jaioko Oier. 7 urte daramatza Mallabian bizitzen. Bi urteko ume baten alita da. 'Ambulancias Maiz' enpresan ambulanzia gidaritzan dihardu lanean.**

ruan etxe bila genbiltzan, eta hemen bukatu genuen!

- *Gustura?*

Bai, asko! Arrazoi batzuen artean, lasaitasuna eta apartatzeko lekua dagoelako.

- *Aisialdian...*

Kotxe klasikoak gustatzen zaizkit. 37 urteko Seat 127 bat daukat. Tarteren bat dudanean, hor aritzen naiz ni neu konponketak egiten.

- *Lasterketetan ere aritu*

*zara, ezta? Zer nolako esperientzia izan da?*

Bai, 5 lasterketan parte hartu dut, ongi pasatzeko asmoarekin, eta horrela izan da. Esperientzia ona da. Afizio bera duen jendearekin egotea gustuko dut.

- *Musika mota bat?*

Orokorrean, musika mota guztiak ditut gustuko. Baina aukeratzekotan, azkenaldian estilo akustikodun musika.

- *Jateko...*

Denetarik jaten dut. Astean zehar jateko lapikokoak, eta astebururako txuleta on bat!

- *Akats bat?*

Batzuetan gauzak pentsatu gabe esaten ditudala.

- *Bertute bat?*

Jatorra eta alaia naizela.

- *Bidai bat egitekotan?*

Australiara joatea gustatuko litzaizuke.

- *Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?*

Egunero-egunero ez, baina sarritan Play Stationean aritzen naiz.

- *Zerk ateratzen zaitu onetik?*

Gauza gutxik. Norbait edo zerbaiten zain edo esperoan egon behar izanak, esaterako.

- *Erraz haserretzen zara?*

Ez. Pazientzia handia dut.

- *Zerk eragiten dizu barrea?*

Txisteeak.

- *Zure bizitzako egunik zorionsuena?*

Kayet, nire semea jaio zen eguna, zalantzarik gabe.

- *Zein albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea?*

Egunerokotasunean, pil-pilean dauden gaiak: krisia bukatzea, bakea munduan...

Igone Amesti

**Proba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**DQ**  
Mouth

**ZUTIK**  
garagardotegia

Ogitartekoak,  
hanburgesak,  
plater konbinatuak,  
kaxolak....  
konpainiarik onenean!!

Zubiaurre 21 - arkupeetan  
ERMUA · 94317 39 78

**ETXERA**  
eramateko  
616 80 22 81

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)



**Aitor Hernández, ziklo-kroseko txirrindularia:**

## “Ondo nabil, baina sponSORra lortu ezean ez dut honetan jarraituko”

Ziklo-kros denboraldia bukatzeko ia 20 lasterketa geratzen badira ere, Aitor Hernández ermuarrak erakutsi du sasoi ezin hobean dagoela. Superprestigio kategorian 2. doa (Egoitz Murgoitio puntu gutxira du) eta txapelketa horretan, Euskadikoan eta Espainiakoan bere onenak ematea du helburu txirrindulariak. AEBeko mundialean ere lekua izan nahiko luke, baina bere karreraren aurrera egiteko sponsor baten premia sumatzen du.

**- Aurtengo ziklo-kros denboraldia urriaren 6an hasi zen eta 13 lasterketa egin dituzue dagoeneko. Zer nolako emaitzak lortu dituzu orain arte?**

Zazpi lasterketa irabazi ditut eta gainontzekoetan lehen 3ren artean sailkatu naiz. Horri esker, Espainiako rankinean 1. postuan nago.

**- Euskadiko challenge-ean aritzen zara eta baita Superprestigioan (estatuko txirrindulariak batzen dituen kategorian, alegia). Alde handia igartzen da txirrindularien mailan?**

Ez. Estatuko ziklo-krosean mailarik onena duten txirrindulariak hemengoak dira: Egoitz Murgoitio Abadiñokoa da eta Javier Ruiz de Larrinaga arabarra da eta Euskadiko challenge-an korritzen dute astebururo, nirekin batera. Superprestigioan 4 lasterketa egin ditugu eta bi irabazi ditut eta beste bitan 2. postua lortu dut.

**- Zein da denboraldi honetarako duzun estrategia?**

Denboraldia ondo hasi eta ondo amaitzea gustatzen zait, hau da, erregularra izatea. Beste batzuk, lasai hasi eta helburu bat ipintzen diote euren buruei: “Espainiako txapelketa irabaztea, urtarilaren erdialdera”, esaterako. Niri, ordea, hasieratik dena ematea gustatzen zait, ahalik eta lasterketa gehien irabaztea.

**- Aurten zure mailarik altuena lortu duzula esango zenuke?**

Hobetzeko tarte dudala uste dut. Abenduan nazioarteko lasterketak ditugu Igorren eta Asteasun, atzerriko txirrindulariak etorriko dira eta ondo aritzea espero dut. Hala ere, gaur eguneko mailari eutsiko banio, pozik egongo nintzateke.

**- Iaz ere sasoi olean ibili zinen, ezta?**

Bai, 6 lasterketa irabazi nuen, baina aurten esperientzia handiagoa daukat. Kirol honetan, forma fisikoaz gain, teknika oso garrantzitsua da: bihurtuak hartzeko mo-



dua, bihurtuak bat hurrengoarekin lotzea... Nik teknika-aren arloan gabeziak ditut oraindik eta esfortzu gehiago egin behar dut besteen erritmoa jarraitu ahal izateko. Apurka-apurka hobetzen noa, hala ere. Zirkuituxoa daukat Arraten eta bertan prestatzen dut nire burua.

**- Duela astebete ETBn egindako elkarrizketan aipatzen zenuen kanpora joatea gustatuko litzazukeela. Hemen zailagoa da aurrera egitea?**

Ziklo-krosaren elitea Belgikan eta Holandan dago, baina nik ezin dut lasterketa bat egiteko bertaraino joan. Sekulako gastua da! SponSORra izanez gero, bertara joan, lasterketa egin eta beharbada 15 eguneko prestaketa egin nezake. Gu baino aurreratua- go daude eta eskolak dituzte.

**- Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Estatuko egutegiko lasterketako gastuei aurre egiten laguntzen didaten sponSOR txikiak ditut, baina kanpora irteteko 20.000 edo 30.000 euro inguru beharko nituzke. Ziklo-krosean sariak oso baxuak dira, 120 euro ingurukoak, baina tira, momentu honetan ez dut dirua galtzen, behintzat!

**- Jarraitzeko asmorik, beraz?**

Denboraldia bukatzen denean, otsailean, jarraituko dudan pentsatu beharko dut. SponSORra lortu ezean, zaila ikusten dut maila honetan jarraitzea, afizio moduan jarraituko nuke. Masaje kontsulta dut, bizimodua atera behar dudalako, eta lan horretan zentratuko nintzateke.

Dorleta Vidal

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**PUB YOMY**



**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**



## Heldu da berriro eguna

**Z**enbat denbora pasa da azken egunetik? Gehiegi...

Egun hauetan hotza eta euria egin arren, gaur eguzki polita aterata da. Barrura sartzen naiz eta kamiseta zuri-gorria janzen dut. Ondo ikusi behar gaituzte nortzuk garen, dudarik ez egoteko norbait gerturatzeko bada. Suposatzen da ez dela inor etorriko. Hiru bakarririk gaude 'lanean' baina, hala eta guzti ere, gizon bat agertzen da karrotxoarekin, "Gaur da, ezta?". "Ez, bi egun barru izango da, prestatzen gabiltza...". "Aibalaaa! Bueno, behintzat paseotxo bat eman dut!". "Bai, giro ederra dago gaur, agur!". Ezer esan barik irteten da.

Agudo ibili behar dugu. Gaur pertsona gutxiago gaude, norma-

lean bost bat egoten gara, eta gauza dezente dago kaxetan sartzeko, bestetan gutxiegi egoten da. Normala da etortzen direnak kezaketa eta nahiko ez dela esatea, baina beti eskerrak ematen irteten dira, eta niri behintzat, bihotza txikitzen zait, are gehiago, haurrak daudenean. Azken horiek dira larriago dabiltzanak eta gutxien konturatzen direnak.

Bostetan hasi gara. "Ze ordu da?". "Ia zortziak, baina tira, bukatu dugu, orain dena txukun utzi eta mahaia prest lagako ditugu. Bi egun barru ikusiko dugu elkar, gogoratu Gurutze Gorriko kamiseta ekartzeaz". "Ni ezingo naiz etorri, lanean egongo naiz, kontutuko didazue zelan irteten den elikagai banaketa".

Jertsea jantzi eta lokalera noa, pentsakor. Behar bezala jan gabe



*Ioritz Rasero*

zenbat joango dira gaur ohera? Zer egin daiteke hau aldatzeko? Eta lagunei gertatzen bazaie? Eta neuri gertatzen bazait? Zerbait egin behar dugu, agudo.

Gaur hotz egiten du... baina denon artean batuko ditugu berotzeko behar ditugun eguzki izpiak.

**\* Gurutze Gorriak elikagaiak banatzen ditu Ermuan Elikagaien Bankuaren laguntzarekin. Hilean behin egiten dute banaketa, herriko auzo batean, eta gero eta gehiago dira janari eske hurbiltzen direnak. Azken hilabetean 13 familia gehiago izan dira janaria jasotzen.**

**Niri, behintzat, bihotza txikitzen zait, are gehiago haurrak daudenean**

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian  
Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**LANA**

Haur Hezkuntzako hezitzaile euskalduna eta esperientziaduna, goizez nahiz arratsaldean Mallabi eta Ermuan umeak zaintzeko prest. Auto propioa. © 619811629

Alemaneko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen truke eta HEOeko azterketen prestaketa. © 670793312.

Mutil arduratsua eskaintzen da baserriak, etxeak eta bulegoak garbitzeko. Baita pertsona nagusiak ospitalean edo etxean zaintzeko. © 688812845



Azaroaren 8an  
Zorionak Danel eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



Abenduaren 7an  
Zorionak Iraia eta musu asko zure 7. urtebetetzean ama, aita eta Oinatzen partez.



Azaroaren 16an  
Zorionak Julen zure 4. urtebetetzean zure gurasoen partez.



Abenduaren 4an  
Zorionak zure 4. urtebetetzean eta musu handi-handi bat Jone, aita eta amaren partez.



Abenduaren 2an (Amama Miren)  
eta abenduaren 8an (Ibai).  
Zorionak eta patxo handi bana etxeko partez.



Azaroaren 19an  
Amatxorik ederrenari egun zorionsua opa diogu Unai eta Jaimek.



Azaroaren 15ean  
Zorionak Jon zure 9. urtebetetzean. Ondo pasa eta musu handi bat familia osoaren partez!



Azaroaren 12an  
Zorionak Xabat zure 4. urtebetetzean. Maite zaitugu!! Zure familiakoen partez.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**ABENDUAREN 12a**

optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

komunitateak aseguruak

**San Pelayo**

aholkularitza fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
**MATE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
ERMUA

**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**OUTUMURO**  
Kafetegia


Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



**MALLABIA  
1942**

Argazki hau Azkoitian aterata dago 1942 urtean. Bertan proba egin ondoren agertzen dira Cecilio Agirrebeitia eta Felix Aldapa.

**ERMUA  
1951**

San Juan egunean, Eibarren ateratako erretratu honetan, txanpanari latigoa ematen.

Tente  
Alejandro Zubizarreta,  
Ana Mari Izagirre,  
Luis Mari Izagirre  
eta M<sup>a</sup> Luisa Gorosabel.  
Makurtuta  
Loren Goitandia,  
Pedro Royo,  
Juantxo Arrieta  
eta Félix Moreno.

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
943 030 299

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**Eusko Jaurlaritzak 5.000 eurorainoko diru-laguntza emango die kotxe elektrikoak erosten dutenei eta kotxeak kargatzeko 350 puntu publiko eraikiko ditu aurten. Estimazioen arabera, 2020an, 41.000 kotxe elektriko egongo dira Euskadin.**

**Kotxe elektrikoak erosi zenuke?  
Zeintzuk abantaila eta desabantaila ikusten dizkiozu kotxe elektrikoari?**

Bai. Kotxe elektrikoak ez du ingurugiroa kutsatzen, eta kotxe tradizionalak baino abiadura gutxiago duenez, istripu gutxiago egongo ziren. Dena den, kargatzeko puntu gehiago behar direlakoan nago.



**Antonio Alvarez, 59 urte**



Kotxe elektrikoak erosi nuke, ekologikoak direlako. Behar bada, kargatzeko puntu nahikorik ez da egongo, eta gainera Eusko Jaurlaritzak 5.000 euroko diru-laguntza eman arren, oso garestiak dira.

**Ines Arano, 19 urte**

Bai, baina oso garestiak dira eta autonomia gutxi ematen dute bateriak iraupen mugatua duelako. Kotxe elektrikoak abantaila ugari ditu, ingurugiroarekin lotuak.



**Ramiro Cid, 56 urte**



Ekonomikoki errentagarria bada eta gobernua diru-laguntza hori emanaz gero, kotxe elektrikoak erosi nuke. Kotxe elektrikoak ez du kutsatzen, baina, abiadura aldetik behar bada ez ditu kotxe normal baten ezaugarriak edukiko.

**Andoni Vadillo, 23 urte**

Kotxe gidabaimena atera berri dut eta egunen batean kotxe elektrikoak erosten planteatzen nabil. Kotxe elektrikoaren abantaila da ekologikoa dela, baina baditu beste desabantaila batzuk: garestia da, kotxe arruntak baino motelago dabil, eta gainera ez dago kotxe elektrikoaren gaineko informazio nahikorik.



**Garazi Novoa, 20 urte**



Egia esan ez dakit asko gai honen inguruan, baina dakidan horretan oinarrituz ez nuke kotxe elektrikoak erosi. Izan ere, gaur egungo gizartea ez dago prestatuta, ez baitaude kotxeak kargatzeko leku askorik. Gainera, daukaten autonomia baxua delakoan nago. Horrez gain, abantaila bat ikusten diot: kontaminazioaren murrizketa.

**Josune Bustos, 23 urte**

Leire Elustondo eta Izara Rivas

**akerlei**  
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5  
48260 - Ermua  
943 17 66 32  
akerlei@akerlei.com

**LAGUNTZA ESKOLAK  
INGELES, FRANTSESA  
ETA ALEMANA**

...  
**BERRIKUNTZAK:**  
· Ingeles eta frantseseko  
eskolak 4-5 urteko umeentzat  
· Urtariletik aurrera,  
helduentzako speaking ikastaroa



**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312



## ZINEA

- Hilaren 1etik 3ra.
  - Hilaren 8tik 10era.
  - Hilaren 15etik 17ra.
  - Hilaren 22tik 23ra.
  - Hilaren 29tik 30era.
- Zehaztu gabeko filmeak.  
Hainbat ordutegi.  
Ermua Antzokian.

## UMEENTZAKO ZINEA

- Hilaren 2an.
  - Hilaren 9an.
  - Hilaren 16an.
  - Hilaren 23an.
  - Hilaren 30ean.
- Zehaztu gabeko filmeak.  
17:00etan.  
Ermua Antzokian.

## ZINE-KLUBA

- Hilaren 6an.
  - Hilaren 13an.
  - Hilaren 20an.
  - Hilaren 27an.
- Zehaztu gabeko filmeak.  
20:30ean.  
Ermua Antzokian.

## MUSIKA

- Hilak 15:  
Blues kontzertua:  
Nico Wayne.  
20.00etan.  
Lobianon. Sarrera: 8€
- Hilak 18:  
Kontzertua: Orlis Pineda  
(kantautore kubatarra).  
19.00etan. Liburutegian.  
Sarrera dohainik.
- Hilak 19:  
Kontzertua: Alboka  
Musika eskolako  
ikasleak. 19.30ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera dohainik.
- Hilak 23an:  
Kontzertua: Euskal  
Kantuak: Leire eta Iker  
Elustondo. 12.30ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera dohainik.
- Hilak 28:  
Kontzertua: Leiva.  
22.15ean. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 15€

## ANTZERKIA

- Hilak 14:  
'Su txikian' (euskaraz).  
20.00etan eta 'A fuego  
lento' (gaztelaniaz)  
22.15ean, Glu-Glu  
Produkzioen eskutik.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 15€

## UMEENTZAKO EKITALDIAK

- Hilak 1:  
Haurrentzako  
ipuin-kontaketa:  
'Tataguaren gaua',  
Maite Francoren eskutik.  
17.30ean. Liburutegian.
- Hilak 24:  
Olentzero txiki: Kalejira.  
11.00etatik aurrera  
plazatik irtenda.
- Abenduaren 26tik  
urtarrilaren 4ra:  
Gabonetako haur  
parkea: puzgarriak,  
ludoteka, ohe elastikoak,  
bideo-konsolak, jolasak,  
tailerrak, irakurtzeko  
txokoa...  
11.00etatik  
13.00etara eta  
16.00etatik  
20.00etara.  
Abenduaren 26an,  
soilik arratsaldean.  
Abenduaren 31n,  
bakarrik goizean.  
Urtarrilaren 1ean, itxita.
- Hilak 26:  
Pailazoan ikuskizuna:  
'Gabonetan ere barrez'.  
Txirri, Mirri eta  
Txiribiton'en eskutik.  
17.00etan. Ermua  
Antzokian. Sarrera: 6€

- Hilak 29:  
Haurrentzako antzerkia:  
'Arratoixo pinpirina'.  
Glu-Glu Produkzioen  
eskutik. 17.00etan.  
Antzokian. Sarrera: 4€
- Hilak 31:  
Olentzeroren harrera.  
18.00etan. Orbe  
Kardenalaren plazatik.

## ERAKUSKETAK

- Hilaren 3tik 16ra:  
Margoak: Irene Iriando.
- Hilaren 17tik 30era:  
Margoa: Udal Margo  
Eskolako ikasleak.
- Hilaren 20tik 23ra:  
Gabonetako mahai  
apaindurak.  
18.00etatik 20.00etara.  
Lobiano Kultur Gunean.

## BESTELAKOAK

- Hilak 4:  
Ikus-entzunezkoen  
emanaldia: Mongol  
Rallye Ermulanmallabia.  
18.30ean Lobianon.
- Hilaren 14tik 15era:  
Gaztela-La Mantxako  
kultur jardunaldiak:  
Hainbat ekitaldi.  
Gaztela-La Mantxako  
Zentruan.

Patxi López



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpet
- Txistua


Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com




Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKI LORE**


**MIGUEL  
Harategia**



**TXORIZOAK  
ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

hamburguesería  
**TITANIK**



Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da  
**Konfiantza eta bermea**, gure lanaren gidari

**4 x 4**



**Kamioiak**



**Tailerra**

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri  
eta galdetu

**Kalitate-prezio** erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala,- 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

[www.areitiomotor.com](http://www.areitiomotor.com) / [administracion@areitiomotor.com](mailto:administracion@areitiomotor.com) / [areitio@areitiomotor.com](mailto:areitio@areitiomotor.com)

**Ugareo**  
aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44



**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 hortz klinika  
**Leire Irazu Garitaonandia**

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Inplanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erlaxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea

**Sanatana Dharma**  
 San Roke 24, behea  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika

- Inplanteak
- Ortodontzia
- Periodontzia
- Hortz-zuriketa / Estetika dentala
- Odontologia orokorra
- Protesiak
- P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

**NATURA**  
 Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50  
 edo 688 63 28 76 telefonora**